



EBAZPENA, IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIARENA, ARTE DRAMATIKOKO ETA DANTZAKO GOI-MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZETAN 2024-2025 IKASTURTERAKO MATRIKULATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUENA.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 54. - 58. bitarteko artikuluetan arautzen ditu Goi Mailako Arte-irakaskuntzak, non sartzen baitira Arte Dramatikoko goi-mailako ikasketak eta Dantzako goi-mailako ikasketak. Artikulu horietan xedatzen den bezala, Gobernuaren eskumena da, autonomia-erkidegoei eta Arte Irakaskuntzen Kontseilu Gorenari kontsulta egin ondoren, aipatutako irakaskuntza horien ikasketen oinarriko egitura eta edukia zehaztea.

Aipatu lege-agindu hori betetzearren, argitaratu zen urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/20206 Lege Organikoak arautzen dituen goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duena; gerora, urtarrilaren 23ko 21/2015 Errege Dekretuak aldatu zuen 1614/2009 Errege Dekretua.

Urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren 11. artikulua xedatzen duen bezala, Gobernuak zehaztuko du Arte Irakaskuntzetako graduatu-tituluak lortzeko ikasketa-planen oinarriko edukia, dagozkion espezialitateetan.

Errege-dekretu horri jarraikiz, argitaratu ziren maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretua, Arte Dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarriko edukia arautzen duena, eta maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretua, Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarriko edukia arautzen duena. Dekretu horien 7. artikuluan jasotzen denez, hezkuntza-administrazioek, ikastetxeen proposamena ikusita, ikasketa-plana ezarriko dute, bertan ezarritako gutxienekoak osatuz.

Aipatutako errege dekretuen 7. artikulua araberan, argitaratu ziren otsailaren 16ko 22/2016 Dekretua, zeinen bidez ezartzen baitira Arte Dramatikoko Goi-mailako Arte-irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitatea eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana, eta otsailaren 16ko 23/2016 Dekretua, zeinen bidez ezartzen baitira koreografia eta interpretazioa espezialitateko dantzako goi-mailako arte irakaskuntzak eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana.

Gainera, maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretuaren (Arte Dramatikoko Goi Mailako Arte Irakaskuntzen oinarriko edukia arautzen duena) eta maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretuaren (Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzen oinarriko edukia arautzen duena) 5. artikuluek Arte Dramatikoko eta Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko baldintzak ezartzen dituzte, hurrenez hurren, eta adierazten dute hezkuntza-administrazioei dagokiela, beren eskumenen esparruan, ikasketa horietara sartzeko berariazko probaren deialdia, antolaketa, garapena eta ebaluazioa egitea.

Beste aldetik, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 84. artikulua ezartzen duenez, hezkuntza-administrazioek honela arautuko dute ikasleriaren onarpena ikastetxe publikoetan: hezkuntzarako eskubidea, berdintasun-baldintzetan sartzea eta ikastetxea aukeratzeko askatasuna bermatuz, zehaztutako plangintza esparruan.

Emandako ahalmena betetzeko, bi ebazpen argitaratu dira: Ikastetxe eta Plangintza zuzendariaren 2024ko otsailaren 21eko Ebazpena, zeinaren bidez Arte Dramatikoko goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-probarako deialdia egiten baita, 2024. urteko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko argibideak ematen baitira eta 2024-2025 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura ezartzen baita;





eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren 2024ko otsailaren 21eko Ebazpena, zeinaren bidez Dantzako goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-probarako deialdia egiten baita, 2024 urteko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko argibideak ematen baitira eta 2024-2025 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura ezartzen baita.

Halaber, 1614/2009 Errege Dekretuak aurreikusten du, ikasleen mugikortasuna benetakoa izan dadin, hezkuntza-administrazioek kredituen aitorten-sistemari buruzko araudia argitaratu beharko dutela. Era berean, Goi-mailako Hezkuntzaren eremuan ikasketak aitortzeari buruzko azaroaren 14ko 1618/2011 Errege Dekretuak Goi-mailako Hezkuntza osatzen duten irakaskuntzetako ikasketen aintzatespen-erregimena arautzen du.

Aipatutako errege-dekretuan ezarritakoa betez, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2018ko azaroaren 22ko Ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko arte-irakaskuntzen ikasketetan kredituak aitortzea eta transferitzea.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita bosgarren xedapen gehigarriak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeari buruzkoak, xedatzen du, nolahi ere, hezkuntza-administrazioek bultzatuko dutela emakumezko ikasleen presentzia areagotzea zientzien, teknologiaren, ingeniartzaren, arteen eta matematikaren esparruko ikasketetan, bai eta emakumeek gutxien eskatzen dituzten lanbide-heziketako irakaskuntzetan ere. Era berean, ezartzen du hezkuntza-administrazioek gizonezko ikasleen presentzia sustatuko dutela emakumeen matrikula gizonena baino handiagoa den ikasketetan.

Ikasle ofizialaren izaera matrikula-prozeduraren mende dagoenez –hori da ikasle izatea lortzeko tresna formala–, matrikula-prozedura horren garapen praktikoa nolakoa izan behar den zehaztu behar da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Xedea eta aplikazio eremua

1. Ebazpen honen xedea da 2024-2025 ikasturterako matrikulazio-prozedura arautzea DANTZERTI-Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi-mailako Eskolan ematen diren Dantzako (koreografia eta interpretazioa espezialitatean) eta Arte Dramatikoko (interpretazioa espezialitatean) goi-mailako arte-irakaskuntzetan.

Bigarrena.- Arte Dramatikoko eta Dantzako goi-mailako ikasketetara sartzeko baldintzak

1. Arte Dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzetan eta Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzetan sartzeko, beharrezkoa izango da Batxilergoko titulua izatea eta sarbide-proba gainditzea. Proba horretan, ikasketa horiek probetxuz egiteko heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak baloratuko dira.

2. Halaber, baldintza akademikoak bete ez arren, hemeretzi urtetik gorako izangaiak Arte Dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzetara eta Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartu ahal izango dira, baldin eta proba bat gainditzen badute ikasleak batxilergoko helburuekiko heldutasuna duela eta dagozkion irakaskuntzak probetxuz egiteko beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak dituela egiaztatzeko.



3. Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren 2024ko otsailaren 21eko Ebazpenak, zeinaren bidez Arte Dramatikoko goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-probarako deialdia egiten baita, 2024 urteko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko argibideak ematen baitira eta 2024-2025 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura ezartzen baita, eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren 2024ko otsailaren 21eko Ebazpenak, zeinaren bidez Dantzako goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-probarako deialdia egiten baita, 2024 urteko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko argibideak ematen baitira eta 2024-2025 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura ezartzen baita, ikasketa horietara sartzeko baldintza akademiko baliokideak zerrendatzen dituzte.

Hirugarrena.- Onarpen-prozesua lehenengo mailan lehendabizikoz hasiko diren ikasleentzat.

1. Eskaintako plazak onartzeko eta esleitzeko, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun- printzipioak bete beharko dira, eta irakaskuntza bakoitzerako sarbide-proben ebazpen bakoitzeko hamahirugarren artikuluan ezarritakoa bete beharko da: Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren 2024ko otsailaren 21eko Ebazpenak, zeinaren bidez Arte Dramatikoko goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-probarako deialdia egiten baita, 2024 urteko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko argibideak ematen baitira eta 2024-2025 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura ezartzen baita; eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren 2024ko otsailaren 21eko Ebazpenak, zeinaren bidez Dantzako goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-probarako deialdia egiten baita, 2024 urteko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko argibideak ematen baitira eta 2024-2025 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura ezartzen baita

2. Onarpen-prozesuari dagozkion zerrendak DANTZERTI Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Eskolako idazkaritzan eta eskolaren webgunean kontsultatu ahal izango dira.

3. Zerrenda horietan onartuak eta ez onartuak agertuko dira, lehentasun-hurrenkeran, ezarritako onarpen- eta esleipen-irizpideen arabera, eta parte hartzen duten kupoa adierazita. Onartu ez diren izangaiek dagozkien itzarote-zerrendak osatuko dituzte. Era berean, baztertutako pertsonen ikasgunea atarian kontsultatu ahal izango dute beren eskaeraren egoera, baita dagokion baztertzeko arrazoia ere.

4. Halaber, behin-behineko zerrenden aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, horretarako ezarritako moduan eta epeetan.

Laugarrena.- Matrikulazio-prozesua.

1. Lehenengo mailan lehendabizikoz hasiko diren ikasleak.

Matrikulazio-prozesuak bialdi ditu: epealdi arrunta eta ezohiko epealdia.

– Epealdi arruntean matrikula egiteko epea 2024ko uztailaren 1etik uztailaren 5era bitartekoa da, biak barne. Ezarritako matrikula-epea amaitu ondoren plaza hutsak geratzen badira, ikastetxeak zuzenean eskaini ahal izango dizkie plaza hutsak matrikulatzeko sarrera-proben itxaron-zerrendako ikasleei.

– Ezohiko matrikulazio-epealdia irailaren 2tik 13ra irekiko da, biak barne, baldin eta, matrikulazio-epealdi arrunta amaituta, espezialitatearen batean plaza hutsak badaude. Ezohiko epealdia horretan parte hartu ahal izango dute sartzeko baldintzak egiaztatzen dituzten pertsona guztiek.



## 2. DANTZERTI ADDGEn ikasketak egin dituzten ikasleak

a) 2023-2024 ikasturtean matrikulatutako ikasleen iraunkortasuna eta mailaz igarotzea lotuta egongo dira otsailaren 16ko 22/2016 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoarekin (dekretuak ezartzen ditu Dantzako goi-mailako arte irakaskuntzak, koreografia eta interpretazioa espezialitatekoak, eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana) eta otsailaren 16ko 23/2016 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoarekin (dekretu horretan Arte Dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzetako interpretazioaren espezialitatea eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana ezartzen da.

b) Mailaz igo diren edo errepikatu duten ikasleek –2023-2024 zentroan matrikulatuta egon diren ikasleak– 2024ko uztailaren 8tik 16ra bitartean, biak barne, egingo dute matrikula.

c) Aurreko ikasturteetan DANTZERTI Arte Dramatikoko eta Dantzako Goi Eskolan matrikulatuta egon eta 2024-2025 ikasturtean ikasketei berriro ekin nahi dieten ikasleek uztailaren 1etik 12ra bitartean, biak barne, aurkeztu beharko dute ikastetxeko idazkaritzan onarpen-eskaera, eta eskatzen den mailan plaza hutsak egoteko baldintzapean geratuko da onarpen hori. Ikasle horiek lehentasuna izango dute espediente-lekualdatzearen bidez onartzeko eskatzen dutenen aldera, eta matrikulazioa uztailaren 18an edo 19an egingo dute, plaza hutsik egonez gero, aurreko ikasturtean matrikulatutako ikasleen matrikulazio-prozesua amaitu ondoren.

Bosgarrena.- Matrikula formalizatzea.

1. Deialdi berean izangai batek plaza bat baino gehiago lortzen badu, matrikula bakarra egin ahal izango du.

2. Matrikula aurrez aurre egingo da, DANTZERTI Arte Dramatikoko eta Dantzako Goi Mailako Eskolako idazkaritzan, esleitutako egunean eta orduan, eta Eskolako Zuzendaritzak ezarritako moduan.

3. Aurkeztutako eskabidean akatsen bat dagoela ikusiz gero, eskabidea zuzentzeko eskatuko zaio interesdunari, gehienez ere 10 eguneko epean, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

4. Onartutako pertsonak ebazpen honetan ezarritako epean matrikula ez badute gauzatzen, esleitutako plazari uko egin diotela ulertuko da.

4. Ikastetxeak, nolana ere, onarpen-prozesuan parte hartzeko betebeharririk ez duten ikasleen matrikulazioa bermatu beharko du, beharrezkotzat jotzen diren plaza-kopurua erreserbatuz.

5. Nolanahi ere, onartutako pertsonak dagokion prezio publikoa ordainduta formalizatuko da matrikula.

Seigarrena.- Espediente-lekualdaketak

1. Beste zentro batean egindako ikasketa partzialak dituzten ikasleek Arte Dramatikoko eta Dantzako Goi Mailako Eskolako idazkaritzan eskatu ahal izango dute lekualdaketa, 2024ko uztailaren 1etik 12ra bitartean, biak barne. Espedientea lekualdatzeko eskaerak onartu ahal izango dira, baldin eta, gainerako ikasleen matrikulazio-prozesua amaituta, ikastetxeak plaza libreak baditu eta izangaiek horretarako baldintzak betetzen baditu, indarrean dagoen araudiaren arabera.



2. Behin espediente-lekualdaketa onartuta, ikasleek matrikula aurrez aurre gauzatuko dute ikastetxeko idazkaritzan, jendaurreko ordutegiaren barruan, eta ezohiko matrikulazio-epealdian, irailaren 2tik 13era.

3. Ikasle horiek jatorrizko ikastetxean gainditutako ECTS kredituak aitortzeko eskubidea izango dute, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2018ko azaroaren 22ko Ebazpenean xedatutakoarekin bat etorriz. Ebazpen horrek Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako arte-irakaskuntzetako ikasketetan kredituen aintzatespena eta transferentzia arautzen ditu.

Zazpigarrena. - Dagozkion prezio publikoak ordaintzea

1. Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen zerbitzuen prezio publikoak Hezkuntzako sailburuaren 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren testu bateginaren eranskinean daude finkatuta. Agindu horren bidez, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dira, 2014ko ekainaren 3ko, 2015eko uztailaren 9ko, 2016ko maiatzaren 16ko eta 2018ko maiatzaren 16ko aginduek egindako aldaketekin.

Arte Dramatikoko eta Dantzako goi-mailako ikasketen kasuan, 2024-2025 ikasturterako, ondoren zehazten diren matrikula-kontzeptuaren prezio publikoak ezartzen dira:

Dantzako goi-mailako ikasketak	
Espedientea irekitzea ikastetxean ikasketak hasteagatik	27,34 €
Derrigorrezko zerbitzuak	6,00 €
Kurtso osoa (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa)	20,00 €
Gainditu gabeko irakasgaiak; bigarren matrikula (ECTS kreditu bakoitza)	28,80 €
Gainditu gabeko irakasgaiak; hirugarren matrikula (ECTS kreditu bakoitza)	43,30 €
Sarbide-proba	28,02 €

Arte Dramatikoko goi-mailako ikasketak	
Espedientea irekitzea ikastetxean ikasketak hasteagatik	27,34 €
Derrigorrezko zerbitzuak	6,00 €
Kurtso osoa (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa)	23,00 €
Gainditu gabeko irakasgaiak; bigarren matrikula (ECTS kreditu bakoitza)	33,10 €
Gainditu gabeko irakasgaiak; hirugarren matrikula (ECTS kreditu bakoitza)	49,80 €
Sarbide-proba	28,02 €

2. 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren testu bateginaren 2.2 artikuluan xedatzen den bezala, prezio publiko horien zenbatekoa aldez aurretik ordaindu beharko da matrikulatzeko unean; ordainketa hori egiteko epea eta modua jakinaraziko dira.

Hala ere, Dantzerti Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Eskolan ikasten duten ikasleentzat, aipatutako araudiak aukera ematen du matrikula-prezioak ordaintzeko bai ordainketa



bakar batean matrikula egitean, bai zatituta hiru ordainketa berdinetan. Ordainketa horietatik lehena matrikula egitean egingo da, bigarrena abenduko lehen astean eta hirugarrena otsaileko lehen astean.

3. Dagokion prezio publikoa ezarritako epean eta moduan ordaintzen ez duenak galduko du hura onartzeak dakarren eskubide oro, eta zegokiokeen plaza hutsik utziko du.

4. Jarraian zehazten diren taldeek izango dute prezio publikoak ordaintzetik erabat salbuesteko edo hobaria aitortzeko eskubidea:

a) Familia ugariko ikasleak, baldin eta izaera hori aitortuta badute, Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legean zehaztutako baldintzetan:

i) Dagokion prezio publikotik salbuetsita geratuko dira kategoría bereziko familia ugariko ikasleak.

ii) Dagokion prezio publikoaren % 50eko hobaria izango dute kategoría orokorreko familia ugariko ikasleak.

Familia ugaría dela egiaztatzeko, Foru Aldundiak edo arlo horretan eskumena duen administrazioak emandako titulu ofiziala aurkeztu beharko da, non jasotzen den familia ugaría dela, kategoría barne; halaber, administrazio-auzotasuna edo errolatze-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da barne.

Data horietan aitortpena izapidetzen ari bada, titulu ofiziala aitortzeko edo berritzeko eskaeraren kopia aurkeztuko da. Aitortpena lortu edo dagokion berrikuspena egin ondoren, horren kopia konpultsatua entregatu beharko da matrikulazioaren urte naturaleko abendua amaitu baino lehen.

b) Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 25. artikuluan jasotako kasuetan dauden ikasleak: horiek dagokien prezio publikotik salbuetsita egongo dira.

c) Batxilergoko ohorezko matrikularen kalifikazio orokorra duten ikasleak: dagokien prezio publikotik salbuetsita egongo dira. Salbuespen-eskubide hori goi-mailako ikasketetara lehen aldian sartzeko matrikularen ordainketan baino ez dute izango.

d) Irakaskuntzen ikasketa-plana osatzen duten irakasgaietan ohorezko matrikularen kalifikazioa duten ikasleak: ikasle horiek matrikularen guztizko prezioan dagokion kenketa izango dute, aipatutako irakasgaien ECTS kreditu-kopuruaren arabera; kenketa horiek ikasketa berberen hurrengo matrikulan aplikatuko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleei, soilik, eta ez, ordea, beste autonomia erkidego batetik datozenei.

5. Matrikula egin denean, eskatutako salbuespena edo hobaria egiaztatzen duten agiri guztiak urte horretako abendua amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira. Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean aurkezten ez bada, emandako onurak indargabetu egingo dira, eta salbuespena edo hobaria izan duten prezio publikoak osorik ordainduko dira.

6. Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak ECTS kredituak aitortzeko eskaerari aldeko ebazpena ematen badio, kreditu horientatik ordaindutako prezio publikoak itzuliko zaizkio interesdunari.

Zortzigarrena.- Matrikulak ematen dituen eskubideak



1. Matrikularen prezioa ordaintzeak matrikulatutako irakasgai bakoitzean bi ebaluazio deialdi izateko eskubidea emango du, betiere urte beraren barruan.

2. Ezarritako prezio publikoaren ordainketa osoa edo partziala behin eginda, ikasleek matrikulagatik ordaindutako kopurua jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta prezio hori ordaintzera derrigortutako pertsonari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jarduera egiterik ez badago edo ordaindutako zerbitzua ematen ez bada.

Bederatzigarrena.- Matrikula baliogabetzea

1. Aipatutako ikasketak eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana ezartzen dituzten dekretuen arabera, ikasketa horietarako aurreikusitako deialdiak eta egonaldi-urteak ez agortzeko, matrikula baliogabetzeko eskaera aurkeztu ahal izango zaio ikastetxeko zuzendariari bertako idazkaritzan, ikasturtea hasten den urte naturaleko azken eskola-eguna baino lehen, ebazpen honen I. eranskinean zehazten den eredu normalizatuari jarraituz.

2. Urtarrilaren 1etik aurrera izapidetzen diren baliogabetze-eskaerak Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzara bidali beharko dira, aztertu eta ebatzi ditzen.

3. Eskaera horren aldeko ebazpena emango da, honako inguruabar hauetakoren bat egiaztatzen bada:

a) Ikaslearen gaixotasun luzea.

b) Prestakuntzan normaltasunez aritzea eragozten duen lanpostu batean hastea.

c) Prestakuntzan normaltasunez aritzea eragozten duten betebehar pertsonalak edo familiarrak.

d) Ikastetxeko Zuzendaritzak aurreikusitako aparteko beste inguruabar batzuk.

4. Ikasleek justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak behin eta berriz eginez gero, ikastetxeko zuzendaritzak matrikula ofizioz baliogabetu ahal izango du, Arte Dramatikoko 22/2016 eta Dantzako 23/2016 Dekretuetan ezarritakoaren arabera.

5. Matrikula baliogabetzeak hasierako matrikularen ondorio akademikoak galtzea ekarriko du, eta ez du, inola ere, ordaindutako prezio publikoak itzultzeko eskubiderik emango.

Hamargarrena.- Datu pertsonalen babesa.

1. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz, Goi-mailako Arte-irakaskuntzak egiteko eskabideen bitartez lortutako datu pertsonalak erabiliko dituzte 2024-2025 ikasturterako matrikulazio-prozedura kudeatzen duten organoek, aipatutako prozedura antolatzeko.

2. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubideak ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).



3. Halaber, eskatzaileek baimena ematen diote Hezkuntza Sailburuordetzako Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako dokumentuak.

Azken xedapenetatik lehenengoa.-Ondorioak.

Ebazpen honek Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratzen denetik aurrera izango ditu ondorioak. Web-orri horretan ikusgai egongo da, harik eta deitutako prozedura amaitu eta hura gauzatzearen ondoriozko errekurtsio-epeak igaro arte.

Azken xedapenetatik bigarrena.-Errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eugenio Jiménez Ibáñez  
Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria





## I. ERANSKINA - MATRIKULUA BALIOGABETZEKO ESKABIDEA

Izena eta abizenak:		NA/AIZ/HNA:
Helbidea:		Udalerria:
Posta kodea:	Lurralde Historikoa:	
Telefonoa:	Posta elektronikoa:	
Honako ikastetxe honetan matrikulatua:		

## ADIERAZTEN DU:

\_\_\_\_\_ goi-mailako irakaskuntzen \_\_\_\_\_ mailan matrikulatuta dagoela.

Eskabideak justifikatzeko arrazoiak honako hauek direla:

- Ikaslearen gaixotasun luzea
- Ikaslea lanean hastea, eta horrek ikasketetan ohiko moduan aritzea galaraztea.
- Betebehar pertsonal edo familiarrak izatea, ikasketetan ohiko moduan aritzea galarazten dutenak
- Aparteko beste inguruabar batzuk: \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_

Azaldutakoagatik, honako hau ESKATZEN DU:

Matrikula baliogabetzea. Horretarako honako agiri hauek aurkezten dira:

- 
- 
- 
- 

\_\_\_\_\_ a(e)n \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an

Sinadura:

\_\_\_\_\_ (e)ko ZUZENDARIA